



BARNE-URETROTOMIA

Barne-uretrotomia erabiltzen da uretraren barne-zauri txiki batetik eratorritako estenosia edo kalibre txikiagotzea tratatzeko (hau da, uretraren herstura tratatzeko). Prozedura honen bitartez, mikzioaren kalitatea hobetzea da kontua, eta maskuriko betirako zunda edo pubis gaineko taila kentzea.

Horretarako, ganibeta duen endoskopia-aparatu bat (uretrotomoa) uretratik sartzen da, eta harekin, estenosiaren ingurua ebaki ahalko da, kirurgia irekirik egin gabe.

Interbentzio horretan minik ez sumatzeko, lasaigarriak hartzen dira; anestesista batek ematen ditu.

Kirurgiaren ondoren, beharrezkoa izango da uretrako zunda erabiltzea bolada batean, ezin zehaztu zenbat denboran. Zunda kendu eta gero, beharrezkoa izango da uretra-dilatazioak egitea (gero eta kalibre handiagoko zundatzeak).

Interbentzioaren ostean, gelan geratuko zara jakiak hartu, ondo egon eta etxera joateko moduan egon arte.

Nola egongo zara kirurgia ostean?

Kirurgia ondoko lehen egunetan, honako hauek ager dakizkizuke:

- Hematuria (odola gernuan).
- Disuria (mina txiza egitean).
- Polakiuria (hau da, mikzio sarria)

Zer egin behar duzu etxean?

- Interbentzioaren ondoko lehen 48 orduetan, atsedentxo hartu behar duzu; ez egin ahaleginik, ezta kirol zakarrik eta jarduera astunik ere.
- Hartu likido asko, bi eta hiru litro artean, egunero.
- Ez egin ahalegin fisiko handirik zazpi egunez.
- Har dezakezu ohiko dieta eta medikazioa.
- Mina baduzu, hartu medikuak aginduta dizun analgesikoa.

Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, joan medikuarengana edo Larrialdietara.

- Sukar handia (38 gradutik gorakoa).
- Hematuria (odola gernuarekin nahasia) edo odoljario handi samarra.
- Gernu-erretentzia.

Edozein zalantza duzula, deitu Urologia Zerbitzura, eta kontsultatu profesional taldeari edo joan Larrialdietako Zerbitzura.

Zein arrisku ditu kirurgiak?

- Mikzioa ez hobetzea edo zunda ez egotea kentzeko moduan.
- Estenosia berritza.
- Zundatzea eskatuko duen odoljario moderatua izatea.
- Uretra zulatzea eta, luzera begira, zundatzea behar izatea.

Zer ondorio izango du zure jarduera sexuarekin?

Interbentziotik 72 ordura, bizimodu sexuala berriz hasteko moduan izango zara.

Berrikusia: 2018ko martxo

IO-UROLOGIA-03

Gehiago jakin nahi baduzu, ez dudarik egin, galdetu artatzen zaituzten profesionali

